

## Apirila



Aitor Bedialauneta, Álvaro Ortega, Pere Cantenys eta Ainhoa Ruiz de Angulo.

### Bilera EDSUrekin.

1

Apirilaren 2an, osteguna, Bilbon urriaren 8tik 11ra izango den EDSUren Europako Mintegia antolatzeko bilera egin zen Donostian. Batzarrean Pere Cantenysek (EDSuko kidea), Álvaro Ortegak (EGko Presidentea), Aitor Bedialaunetak eta Ainhoa Ruiz de Angulok (EGko Gor Gazteen Batzordeko kidea) parte hartu zuten.

### Etika eta Gizarte Zerbitzuen I Jardunaldia.

2

Apirilaren 13an Euskal Gorrakeko presidenteak Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako Etika eta Gizarte Zerbitzuen I Jardunaldian parte hartu zuen.



Jardunaldietako mahaiaren irudia .



Aitor Bedialauneta, Arantza Madariaga -Euskadi Basque Countryko Zuzendari Nagusia-, Maitane Tocino -City Breaks & Mice produktu Sailekoa- eta Álvaro Ortega.

## Bilera Basque Tour-ekin.

Maiatzaren 6an, asteazkena, Álvaro Ortega -EGko presidentea- eta Aitor Bedialauneta -EGko Gor Gazteen Batzordeko kidea- Basque Tourreko (BT) arduradunekin Bildu ziren. BT Euskadin turismoa sustatzera begira lan egiten duen Eusko Jaurlaritzako erakundea da. Bileraren helburua, pertsona gorrei zuzendutako ekitaldiak sustatzeko lankidetzak bideak ezartzen hastea izan zen.

## Presidenteen Biltzarra.

Ekainaren 6an, larunbata, Bilbon izan zen Euskal Gorrakeko kide diren elkarteetako Presidenteen II Biltzarra.



Batzarretan parte hartu zuten bazkideak.

## Ohiko eta Ez-ohiko Batzar Nagusiak.

Ekainaren 20an, larunbata, Euskal Gorrakeko Ohiko Batzar Nagusia izan zen Vitoria-Gasteizen, Arabako Gorrakeko egoitzan hain zuzen ere. Bide batez, EGeko presidentea izendatzeko Ez-ohiko Batzarra ere egin zen, berriz ere Álvaro Ortega hautatua izan zela.



Fernando Pascual eta Álvaro Ortega.



## Euskal Gorrakeko 35. Urteurrena.

Ekainaren 20an, Ohiko Batzar Nagusiko etenaldia aprobetxatuz, Euskal Gorrakeko 35. Urteurrena ospatzeko kafe eta tarta mokadu xumea hartu genuen. Gosari horretara Fernando Pascual ere bertaratu zen eta kandelak itzaltzeaz gain, gonbidapena hitzaldi txiki bat botaz eskertu zigun.



Fernando Pascualen hitzaldia ikusteko kodea kapturatu.




Ainhoa Ruiz de Angulo, Álvaro Ortega, Ritxar Pérez eta Haymar Calvo.

### Presidentetzarako Hauteskundeak.

Ekainaren 20an ere Euskal Gorra-ko presidentetza bozkatua izan zen, Álvaro Ortegak aurkeztutako hautagaitza aho batez hautatua irten zela. Hautagaitza honakoek osatzen dute: Eduardo Amorós presidenteorde moduan, Ritxar Pérez diruzaintzan, Ainhoa Ruiz de Angulo idazkari lanetan eta Haymar Calvo mahaikide paperean.



Euskal Gorra



**EUSKAL GORRAK**  
 Pertsona Gorren Elkarten Euskal Federazioa

k/ Hurtado Amézaga 27 – 6. pisua  
 48008 Bilbo  
 Tel.: 944 765 052 / 637 861 920  
 Emaila: euskalgorrak@gmail.com

# Euskal Gorra*k* ibili badabil !!

## Apirila

Apirilak 2

Bilera EDSUrekin Bilbon.

Apirilak 13

Etika eta Gizarte Zerbitzuetako I Jardunaldian parte hartu.

Apirilak 24 eta 25

CNSEren Plan Estrategikoaren diseinuan eta Presidenteen Biltzarrean parte hartu (Madril).

Apirilak 28

Bilera Euskal Gorra*k*eko koordinazio teknikari nahiz zerbitzuetako arduradunekin.

## Maiatza

Maiatzak 5

Bilera Basque Tour-ekin.

## Ekaina

Ekainak 5

Bilera BBK-ko Gizarte Ekintzako Zuzendariarekin.

Ekainak 5

Euskal Gorra*k*eko Zuzendaritza Batzordeko bilera.

Ekainak 6

Presidente*en* II Biltzarra.

Ekainak 10

Bilera Holiday Inn-eko Salmenten Zuzendariarekin.

Ekainak 12

CNSE Fundazioaren Patronatuaren bileran parte hartu (Madril).

Ekainak 20

Ohiko Biltzar Nagusia.

Ez-ohiko Biltzar Nagusia.

EGko presidentetzarako hauteskundeak.

Euskal Gorra*k*eko 35. Urteurrenaren ospakizuna.